



Ilustrazioa:
Kristina Fernandez

Idazleari buruz...

(Iruña, 1959) Ikasketaz eta lanbidez ez dut lotura zuzenik izan idazketaren munduarekin, nekazaritza ingeniari teknikoa bainaiz. Bai, aldiz, nekazaritza mundu euskaldunarekin; horrek areagotu zuen nire baitan euskarari buruzko interesa eta euskaraz komunikazio oso eta zabala lortzeko behar sendoa. Beraz, euskaraz idazten dut inolako espektatibarik gabe, hizkuntzatik atsegin hartzeko gogo hutsez.

Juan Jose Pellejero Goñi

Orbain minberatuak

Lurdes maitea:

Azalean nire izena ikustearekin gutuna jaurtiki ez dunalakoan bidaltzen dizkinat lerro hauek. Idazten dinat ez dudalako ulertzen lehengo egunean zergatik uko egin hion ni agurtzeari; min eman hidalakoz.

Ez dakin zenbat aldiz hasi dudan eskutitz hau. Azkenean erabaki dinat errazena egiten zaidanetik hasia: oroitza-penak.

Duela hamabortz urteko uda hura mundiala izan zunan. Gure gurasoek Hondarribira erbesteratu gintiztenan sanferminetako atzaparretan eror ez gintezen. Txotxolo hala-koak! Gu eramanagatik ustezko ogroarengandik urrun, ez zitiztenen saihestu zelatan nonahi dauden larru-leunezko ogroak. Gurasoek nik ikastea nahi ez zuten guzia –eta apur bat gehiago ere– hik bi aste haietan erakutsi hidan. Uxue nire lehengusinak elkar aurkeztu gintuen unetik liluratu nindunan. Hain hintzen segurua, burutsua, ausarta; hain hintzen ederra eta erakargarria! Arrunt erotu nindunan. Armiarma nola, hasi hintzen amaraun-sarea hedatzen axolagabeturik, harik eta noraezean dabilen tximeleta, ihes egiteko inolako aukerarik gabe, preso atzeman arte. Lehenik, surf egitea izan zunan, eguzkiak ortzi-muga jo arte. Gero, azken garagardoa Txantxangorri ordu txikitik; hurrengoan, Hendaiarako joan-etorriak itsasontzian –edo, hiri erratea gustatu bezala, *navetten*–; herriko bestak, lehenbiziko porrua eta zirriak. Erran ohi dun lehenbiziko amodioa ahantzezina dela. Nire kasuan hala zirudin. Gogoan zizelkatuak zauzkanat orduko iduri haiek: hondar horikara, itsaso eta zeruaren urdintasun osagarriak, eguzkiak belzutako hire azal leuna, musu lizunak eta gorputz beroa; nerabeak gintunan, gazteak eta lirainak. Haiek bezalako oporrak berriz bizitzeko, bigarren aldiz jaio behar niken.

Gero, Iruñean, hi Opusera, ni UPNAra; hik, kazetaritza, nik ingeniarietza. Bortz urte trinkoak: ikasketak, jaiak, kontzertuak, bidaiak, lagun berriak, eta bertze gauza andana bat “berriak” izenondo lagunduta. Gehienetan, hi aitzindari; beti berrikuntzak eske, nobedade bila. Deus, inori loturarik izan gabe. Soka beti laxo, aise askatzeko modukoa. “Askatasuna dena duk”, hire hitzetan. Eta ni, hire amaraun-sarean, hire xarmaren gatibu. Euskadi Irratian, Donostian, praktika batzuk zirela-eta, ondoko urtean bakarrik astebete egon hintzen Hondarribian. Umezurtz sentitu nindunan; hire izena nire gogoan, odola bor-bor, nazkatua eta aspertua

nengonan hirekin kitzikagarriak izandako toki eta jardueretan.

Ikasturtean barna “antzeko-parezido”: fakultateko lagunak zirela, berripaperen batekiko kolaborazioa zela, elkarrekin gero eta bakanagotan. Hala ere, ni beti hire eskuko: etorriko haiz zinemara? «Bai». Nire etxean sushi-afari bat kandlekin? «Bai». Bihar, Belaguara? «Bai».

Kostata, baina ulertu ninan kaprestatu ez zitekeen larrezaldia hintzela. Eta poliki-poliki deskorapilatuz joan nindunan hire amaraun-sarearen hari emozionalak. Banan-banan, aunitzetan minberatua, beti bihotz-ilun. Azkenean, bizitzen ikasi ninan jakinez hiretako ez nintzela deus bezirik, bertze geltoki bat baizik. Nire bide propioa urratzen joan nindunan. Sinets ezadan, aunitz sufrututa. Nik hirekiko nuen itxaropena eta espektatiba arras bertzelakoa baitzen. Elkarrekin pozik bizitzekotan, ez dun inor kaiolaraturik egon behar. Eta nire munduan hi kaiolaratua egonen hintzatekeen.

Hondarrean, zeharo askatuta, libre hegaldatu nindunan hire askatasuna osoki errespetatuz. Uste ninan, hire gogo menderaezin hari jarraikiz, nirea ere errespetatuko hunala.

Karrera akituta, lekutu nindunan Ingalaterrara. Hermina, bakartasuna, hizkuntza edo dena batean zela-eta, aldizka idazten ninan, eta hik batzuetan erantzun. Katy eza-gutu nuelarik ere kontatu ninan. Hire erantzunak, orduan, zero absolutua jo zinan. Gutun falta hura hire jarduera trinkoari leporatu nahi izan nionan. Ez zitzaidan burutik ere pasatu “jeloskor” kontzeptua hire hiztegi aberats eta askean izanen zenik. Baina, lehengo aldian karrikakoa ikusi ondoren, ohartu nindunan nire askatasuna ez dunala hirearen pare kokatzen. Horrek mindu mindinan; garbi ikusi ninan beti izan naizela bertze planik ez dunalarik prest zegoen azkeneko aukera. Orbain baten gaineko kolpeak min handiago eragiten din, orbaina leku minbera baita. Bai, onartzen dinat, hirekiko lotura emozionalek orbain minberak utzi zizkidatenan. Ordea, Katy zaurien sendagarri eta minaren lasaigarrikerik eraginkorren bihurtu dun, baita nire lagun ere, zentzu zabalenean. Hortaz, noizbait estimurik izan badidan poztu beharko hintzateke.

Horrengatik, ez dinat eskatuko adiskide izan gaitzela, elkarrekin gozatutako garaiengatik, arrotz izan ez gaitzela baizik.

Maitasunez, hurren arte.